



## FUNTSEZKO ELKARTEA

*Canvas* ereduaren arabera, funtsezko-elkartea negozio-eredu jakin batek funtzionatzea ahalbidetzen duen hornitzaile eta bazkide sarea da.

Guk gure enpresaren bitartez, abenturazko parkearekin, hainbat ekintza eskainiko ditugu.

Horietako bat paintball da, baina ekintza hau ez da gure menpe egongo; izan ere, paintballean espezializatutako beste enpresa batek eramango du jarduera: Zubietako *Paintball Jaizkiball* elkarteak hain zuzen ere. Hau, lehiakideen arteko aliantza estrategikoa izango da. Alde batetik, paintball enpresari onura egingo diogu gure parkean beraien zerbitzua eskaintzeko aukera emango diogulako, eta leku desberdinetan beraien enpresa ezagutzera eramango dutelako. Beste alde batetik, guretzako ere onuragarria izango da paintball enpresarekin aliatzea, izan ere, beraien etekinen zati bat guretzako izango da, gure parkean beraien zerbitzua eskaintzen uzteagatik.

Horretaz gain, elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoa ere izango genuke. Gure parkearen barruan, bezeroen eskura dagoen txosna bat jarriko dugu. Bertan, edariak zein jakiak aurkituko dira, eta bezeroek momentu oro izango dute erabilgarri. Bi enpresek batera lan egitea, onuragarria izan daiteke, txosnak gure parkearen barruan jardungo zuelako.

Azkenik, gure enpresaren publizitaterako, turismo bulegoa izango dugu aliantza gisa. Bertan, gure enpresaren inguruko informazioa biltzen duen triptikoa utziko dugu bezeroen eskura. Hauen bitartez, bezeroek informazioa bakarrik jasoko dute, eta gurekin kontaktatu nahi izanez gero, webgunea edo telefonoa erabili beharko lukete.